

Alderdiak iritzi publikoa irabazteko lehia ari dira

Mariano Ferrer eta Alberto Surio kazetari donostiarrak elkarrizketatu ditugu martxoaren 10ean. EAEko jokaleku politikoan hiru dira subjektu nagusiak: EAJ, PSE eta PP. EAJk beste alderdiekin elkarrizketa txanda amaitu ostean solastatu gara, PSEren txandak emango duenaren aiduru.

Aste bat luze iragan da hauteskondeak izan zirenetik. Nola ikusten duzu EAEko jokaleku politikoa?

MARIANO FERRER: Lehen asteko mugimenduen interpretazioa hiru koadro-tan bilduko nuke: lehenean Gobernu aldaketa posible da eta etortzekotan PSEren aldetik etorriko da. Alabaina, EAJrekin buruz buru beharko du lehiatu, emaitzek ez diotelako eman espero zuena. Bigarren koadroa: PSE ez dago eroso, gobernatzeko egokitu dakioken sozioa PP delako. PSE saiatuko da gobernatzen bakarka, baina PPK ez dio doaneko aukerarik emango. Hirugarrenean PP ageri da, Galiziako garaipena tarteko, adoretu dago. PPK EAEko bere posizioa baliatu lezake PSOE nahasteko diskurtso espainolistan. Hau da, PSEri egin liezaiokeen planteamendua PSOErentzat onartezina izatea, PSOEren atxikimendua Espainiako konstituzionaltasunarekiko EAEn ez dela benetakoa agerian uzteko.

ALBERTO SURIO: Jokaleku politikoa aurreikusia zen hauteskondeen aurretik, baina alderdien arteko maniobra margen zabalagoarekin. PSEk alderdi konstituzionalisten gehiengo osoa espero zuen. Aspaldi iragarri zenez, PSOEri ez zitzaion egoera

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

laket, ez zen eroso horregatik. PSOEko ministro batek *Damero maldito* izendatu zuen egoera. Alegia, bigarren indar batek PPrekin gehiengo osoa lortzeak eragozpenak ekarriko zituen Espainiako politikan, faktore aldakorrek sartuz. Gainera, PSGren eta BNGren porrotek Galizian egoera politikoa aldarazi dute eta horrek PSE behartu du garaipen bat aldarrikatzera, hots, Lehendakaritza eskuratzera eta Gobernuan izatea.

Eta orain zer?

SURIO: Jokoa oso konplikatu da, arrisku handikoa, desorekatua. PPrekin bataila zabaldu da jada, honek politikaren presiozko osagaiak sartuko ditu jokoan. Ez dezagun ahantz 38 legebiltzarkide konstituzionalisten batuketa datu erabakiorra dela. Ez da PPren eragina soilik, indar korrelazioa aldatu da eta horrek alderdi guztiak behartzen ditu beste jokoetan sartzera.

Joko horretan nola ikusi duzue EAJ? Nola PSE?

FERRER: EAJ iritzi publikoa sustatzeko —edo gizartean zorabio sentsazioa sustatzeko— egiten ari den keinuak alde batera utzita, egoera berriaz jabetu da eta oposizioa pasatzeko prestatzen ari da. Oraindik jarduerako Gobernu bere esku dago, eta logikoki EAJ saiatzen ari da fruituak ateratzen botere gune horri, baita hauteskondeen emaitzei ere, irabazlea izan baita.

SURIO: Ados, baina bien bitartean iritzia- ren bataila dago lehia, eta EAJk borroka hori ere irabazi nahi du. Areago, gizarte legitimotasuna lehia dago eta hori ere irabazi nahi du. EAJk asumitu behar du aurreran-



Mariano Ferrer

Alberto Surio



Mariano Ferrer:
"Oportunista iruditzen zait Zapaterok EAJri *Fair Play* eskatzea, emaitzak Alderdien Legeak baldintzatuta baitaude".

Alberto Surio:
"Euskal politikan aldaketa emango bada neurrikoa izango da, ez da irulketa emango".

tzean bestelako rola dagokiola. Legitimosan demokratikoa ezta-baidea ezina baita, Legebiltzarrean erabakitzen dena.

FERRER: Andoni Ortuzarrek EAJren etorkizuna oposiziotik gobernatzea dela esan du...

EAJ aldatzen hasi da, nolabait.

SURIO: Bai, bereziki bere diskurtsoa, harrigarria da erabakitzeko eskubidea inon ez azaltzea. PSEri eskainitako egonkortasunerako proposamenen ez du aipatu. Sakontasun demokratikoaz ari da, legealdirako koalizio akordioa aipatzen du, krisi ekonomikoari aurre egiteko plana eta abar. Erabakitzeko eskubidea gakoa izan da Ibarretxeren politikan. EAJ pragmatikoa agertu da orain.

Erabakitzeko eskubidea ez du kanpainan aipatu edonola ere.

SURIO: Noski, orain birkokatu da.

FERRER: Hori egia da, baina ez zait birkokatze hori aurpegiatzea bidezkoa iruditzen. Ez dut esan nahi, Alberto, zuk zeuk aurpegiatzen diozunik, baina jende askok leporatu dio EAJri bere kartak ezkutatu dituela. Hori baino sinpleagoa da: Gobernuan aritu da, gehiengoz, eta orain errealitatearekin muturrez topo egin du. Hori ez onartzea absurdua litzateke, baina bere jokaera ulergarria da, irabazle-galtzaile egoeran dago-eta.

SURIO: Noski. Gizartea ulertzeko eta kokatzeko ariketa errealista da, baina horrek irakurketa ez horren onbera ere izan dezake: "EAJri bakarrik boterea interesatzen zaio". "Botereari heldu behar dionez, nola mantendu erabakitzeko eskubidearena..."

FERRER: Noski. EAJk ez dio orain PSEri -are gutxiago PPri- muturrean eman dion planteamenduekin egindako akordioa eskainiko. Absurdia da.

Zapaterok *Fair Play* egitera deitu zuen. Zuri Ferrer, bere jarrera ez zaizu garbia iruditu.

FERRER: Nik *Fair Play*ena aipatzean, Alderdien Legea nuen buruan, ni aurka nago, lege txarra da, operazio politiko bat gauzatzeko pentsatua. Kontuz, lege hau posible egin izanaren erantzukizuna ez zaio Espainiako Gobernuari bizkarreratu behar soilik. Euskal nazionalismotik, eta ezker abertzaletik bereziki, legea gauzatzea posible egin duten gauza asko oso gaizki egin dira. Baina hau esanda ere, oportunistak iruditzen zait Zapaterok EAJri *Fair Play* eskatzea, emaitzak onartu ditzala eskatzea, emaitzak Alderdien Legeak baldintzatuta baitaude, jokia ez da garbia eta.

tzak Alderdien Legeak baldintzatuta baitaude, jokia ez da garbia eta.

SURIO: Nik Alderdien Legeari buruz dudak iritziari eusten diot: Euskadin ez zuen kontsentsu nahikoa lortu, arazo bat dago bere jatorrian, anormaltasuna dago. Ados. Baina, batez ere, gertatua ETArekin ardura da, ETAk espresio soziopolitiko bat bahitua baitauka. Hortik aurrera, ez dator bat Marianorekin hauteskundeetan joko garbi eskasa izan dela esatean. Fenomeno terrorista da hauteskundeetan joko garbia izatea eragozten duena.

Artean, PSOEren eta ezker abertzalearen arteko elkarrizketa posibleen zurrumuruak zabaldu dira.

SURIO: Zurrumurrua EAJk zabaldu du egoera endredatzeko, ingurua nahasteko eta deskonfiantza sorrazteko, PSEren eta PPren arteko harremana oztopatzeko. Zer datu dauka hori esateko? Zurrumuruak dabilta diote eurek, baina batez ere egoera desegonkortzea dute helburu. Besterik da aldaketa politikoa Euskadin izatea. Lopez Lehendakari zara iritsiko balitz zein punturaino erraztuko lukeen berriz ere terrorismoaren bukaera aztertzea.

"PSEren azken helburua, euskal nazionalismoan katarsia bilatzea eta sektore pragmatikoetan eragitea da"

Alberto Surio

Krisi ekonomikoa batetik, Gobernuan ezegonkortasuna bestetik, Europako hauteskundeak datoz... Nik helburu politiko baten alde egiten diren deklarazioak bezala ulertu ditut zurrumurruak. Halere, erne, batetik, PSEri gatazka ixteko aukera etortzen bazaio, ez du alferrik galtzen utziko. Eta bestetik, uneon gertatzen ari denak ezker abertzalean birplanteatzen ari den prozesua bizkortu dezake. Aldaketak diren neurrian abagune berriak izango dira, eta ez da harrigarria kontaktuak berriz ere izatea.

SURIO: Ados. Ez gaude prozesu berri baten atarian, uneon Zapaterok ez du maniobra margenik, baina egia da ere, orain arte PSEren eta Batasunaren artean garatu diren harremanak ez direla hondorik gabeko zakuan erori. Elkarriketa eta lan ordu asko egin da azken urtetan. Horrek nolabaiteko sintonia sortu du, erabat desagertu ez dena. EAJk sarritan aipatzen du PSEren eta ezker abertzalearen

“Uneon gertatzen ari denak ezker abertzalean birplanteatzen ari den prozesua bizkortu dezake”

Mariano Ferrer

pintza efektuarena, ezker abertzalearen eta alderdi sozialistaren artean gauzatzen ari den harremana. Gatazkaren irtenbidean EAJ izango da jakina, baina ezker abertzalearen eta alderdi sozialistaren arteko harremana gakoa izango dela erabat konbentziturata nago.

FERRER: Loiolako elkarrizketen ondoren mahaikideek esandakoa entzutea besterik ez dago. Askoz gogorragoa da ezker abertzaleak EAJz dioena, PSEk eta Otegik konkretuki elkarri egiten dizkioten gaitzespenak baino. Ezker abertzaleak PSEri errespetu gehiago dio EAJri baino.

Galdera bana azkenik. Ferrerri: Bereizi al daiteke lehendakariaren inbestidura saioa Gobernuaren osaketatik?

FERRER: Bai, noski. EAJk Espainiako Kongresuan PSOERI bere botoa eman zion. EAJ ez da Zapateroren Gobernuaren parte. Ezin da, hala ere, erabat konparatu EAJk Madrilen emandako sostengua: 7 boto. Hemen PPren 13 gehi PSEren 25 dira. Noski, hemen Gobernu posible hori PPren helburuen menpe dago, PSE estutzen saiatuko da komeni zaion neurrian: “Azeleratuko dugu Espainiako egoera politikoa –Euskadikoa barne– eta den-dena jarriko dugu jokoan” pentsatuz. Dena den, horrela izango dela ziurtatzeko ez daukagu nahikoa daturik.

Suriori: PSEk frentismoari uko egingo diola esan du beti, eta transbertsalitatea izan da bere lema. PPrekin batera egingarria al da hori?

SURIO: Gertaerek baietsiko dute transbertsalitatearen aldeko apostua, hau da, zein den Patxi Lopezek inbestiduran aurkeztuko duen Gobernu programa, zein den osatu nahiko duen Gobernuaren soslaita eta nola irudikatuko den exekutibo berria iritzi publikoaren aurrean.

Ariketa politikoa orekatsua izatea oso zaila izango da hasieran, zeren eta nahiz PP giltzarria den Jaurilaritza osatzeko, saiatuko da hori ez dadin hain nabaria izan, PSEk berriz, ez dagoela Basagoitiren politikak bahituta agertu nahiko du. Politikan ezein sostengu ez da doanekoa, rol banaketak, dialektika kontraesanak eta konplexuak nagusitu dira. PP eta PSEren artean konfluentzia tarte bat badago, biek hala biek ulertu baitute ezin dutela 2001eko lubakietara itzuli, mezu horrek mundu nazionalista bizkortzen baitu eta iritziaren borroka irabazteko baliatzen zaielako. Dena den, euskal politikan aldaketa emango bada neurrikoa izango da, ez da iraulketa emango. Nire aburuz, PSEren azken helburua, epe ertainera, euskal nazionalismoan katarsia bilatzea da, sektore moderatu eta pragmatikoetan eragitea Zapaterorekin elkar ulertzeko eta finean PSEren eta EAJren arteko konplizitatea berreraikitzeko. ■



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

• **EUSKARAZKO FILM LABURREN EMANALDIA**
Martxoak 24, 19:30

• **MATINÉ**
Filmak frantsesez izango dira, azpiztituluak euskaraz
11:00etan: gonbidapen banaketa; 11:15ean: proiektzioa

- Enfantillages (Umekeriak)
Martxoak 22

- ¡Ah! L'amour (Ene, amodioa!)
Martxoak 29

- Animations citoyennes (Hiri animazioak)
Apirilak 5

- Entre chiens et loups (Txakur eta otsoen artean)
Apirilak 12

- On n'est pas des machines (Ez gara makinak)
Apirilak 19

TXOROLEKU

- Oh mar
Martxoak 28, 17:00 eta 18:30 (1 - 3 urte)

PRINTZIPAL ANTZOKIA

- Mary Poppins. Kontzertu didaktikoak
Apirilak 9, 18:00-19:00

- 2009ko Arabako Bertsolari Txapelketa ABTX09: sustraiak errotuz Finala
Apirilak 4, 17:00.

KORRIKA

- Korrika XIBA topaketa DBH-ko lehen zikloko ikasleak
Martxoak 26, Foru plaza, arratsaldean

Ongi etorri Gasteizera apirilaren 5ean Korrika 16ren bukaera ospatzera!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala